



MUNGIA
UDALA

AGINTALDI PLANA 2023-2027

AURKEZPENA

Kaixo mungiarra,

2023-2027ko Agintaldi Plana aurkezten dizugu. Gure ibilbide-orria. Dokumentu horretan, datozen 4 urteotan abian jarri nahi ditugun jarduera aipagarrienak biltzen ditugu, eta gobernu-taldeak eta Mungiaiko Udal osoak konpromisotzat hartzen ditugu.

Errealitate bihurtzeko zure laguntza izatea espero dugu. Guztion artean Mungia hobea eraikiko dugulako.

Aurrera, Mungia!



Alaitz Erkoreka
Alkatea



AGINTALDIAREN HELBURUAK

2023-2027ko agintaldiaren helburu nagusia hauxe da: **Mungia kohesionatuagoa eta berdeagoa izateaz gain, aukerak eskaintzen dituen udalerrria izan dadin sakontzen jarraitzea**. Hori guztia **pertsonak erdigunean** jarriko dituen eta gure ingurunea errespetatuko duen garapen iraunkorreko eredu baten barruan.

Garapen-eredu hori guztiz dator bat 2030 Agendak eta Garapen Iraunkorrerako Helburuek (GIH) ezartzen dutenarekin. Izan ere, Mungiako Udalak konpromiso sendoa dauka ekimen global horrekin, erabat sinetsita baitago herri eta hiri bakoitza hobetuz planeta osoa hobetzen laguntzen ari garela.

Gure udalerrriaren garapenaren 3 dimentsio handien (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) arteko oreka lortzeko helburu handi hori funtsezkoa da **gaurko Mungia, eta aldi berean, etorkizuneko Mungia hobetzeko**.

Garapen iraunkorreko eredu horren barruan, agintaldi honetan **funtsezko 3 elementutan ere sakonduko dugu**:

- Gure **nortasuna eta balio propioak** nabarmentzea.
- Lurralde-oreka**, Mungiako auzo guztiak berdin garatu daitezen.
- Partaidetza eta lankidetz**a Mungia eraikitzeko bide gisa.



LEHENTASUNEZKO JARDUERAK, 2023-2027

83 jarduera 7 jarduera-ardatz estrategikotan antolatuta::



MUNGIA
IRISGARRIA,
KONEKTATUA
ETA SEGURUA

12 jarduera



MUNGIA
IRAUNKORRA
ETA
SOLIDARIOA

8 jarduera



MUNGIA
PERTSONEKIN

31 jarduera



MUNGIK
BEREZO
NORTASUNA
DU

11 jarduera



MUNGIA ETA
BERE AUZOAK

9 jarduera



MUNGIK
GARAPEN
EKONOMIKOA
DU

6 jarduera



MUNGIK
KUDEAKETA
ERAGINKORRA
DU

6 jarduera



1. ardatza- MUNGI IRISGARRIA, KONEKTATUA ETA SEGURUA



- 1.1** **Irisingarritasuna hobetzeko irtenbiderik egokiena aztertu eta instalatzea** Leizaola lehendakaria kalean. Leizaola lehendakaria kalean irisingarritasuna hobetzeko irtenbiderik egokiena zehazteko eta gauzatzeko proiektu bat egitea, osasun-zentrorako sarbidea errazteko asmoz.
- 1.2** **Irisingarritasuna hobetzea Garraketa kalean.** Kale horretan hainbat elementu hobetzea, hala nola, asfaltatzea, espaloia handitzea eta aparkalekuak antolatzea.
- 1.3** **Irisingarritasuna hobetzea Aita Elorriaga kalean.** Asfaltoa berritzen amaitzea eta bidegorria Torrebillela parkearekin lotzea.
- 1.4** **Uriguen parkea hobetzea.** Ibilbidearen egoera hobetzea eta hiri-altzariak berritzea/zaharberitzea (bankuak eta paperontziak).
- 1.5** **Aldundiarekin etengabeko harremana izatea Bizkaibusen zerbitzua hobetzeko.** Bizkaiko Foru Aldundiarekin lan-ildo jarraitua mantentzea, Bizkaibusen bidez Mungiako garraio publikoaren konektibitate iraunkorra hobetzeko. Hauexek dira lortu beharreko helburuak: maiztasuna handitzea, ekitaldi berezietan errefortzuak ematea eta Bilbotik asteburuetakoko gaueko ordutegia zabaltzea.
- 1.6** **Auzoak hirigunearekin lotzeko Auzotaxi zerbitzuari eustea.** Zerbitzu horrek bizilagunen aldetik jasotzen dituen balorazio positiboak kontuan hartuta, zerbitzuari eustea eta sor daitezkeen behar berriak etengabe aztertzea

- 1.7 Jaitxori busa jaietarako autobus-zerbitzua sortzea.** Zerbitzu hori martxan jartzea, bereziki gazteei zuzendua, auzoetan eta eskualdean eskari handiena duten jaiei garraio segurua eskaintzeko.
- 1.8 Mendeko pertsonentzako Laguntaxi zerbitzu bat sortzeko aukera aztertzea.** Azterlan bat egingo da eskaria ezagutzeko eta zerbitzu hori eskaintzeko aukera teknikoak eta antolakuntzakoak identifikatzeko. Horren helburua da Mungiako mendeko pertsonen mugikortasuna erraztea, osasun-zentrora eta beste udal-zerbitzu batzuetara joan daitezen.
- 1.9 Taxi-geltoki berria Berreaga mendian.** Leku horretan taxi-geltoki bat sortzea.
- 1.10 Araututako aparkaleku-sistema handitzeko aukera aztertzea.** Sistema erregulatuko egungo eremuen balorazio positiboak kontuan hartuta, aparkaleku ordenatuagoa lortzeko sistema hori beharrezkoa izan daitekeen udalerriko beste eremu batzuetara zabaltzea aztertzea, betiere bizilagunen iritziak kontuan hartuta.
- 1.11 Udaltzaingoa gero eta hurbilago.** Gure udaltzaingoaren lana Mungiako bizilagunengana hurbiltzeko hasitako lana areagotzea, haiekin entzuketara aktiboko kanal bat ezarriz. Gainera, ikastetxeekin eta beste gizarte- eta hezkuntza-gune batzuekin lankidetzan arituko gara, gure haurren eta gazteen artean bizikidetzako eta gizabidezko jokabideko balioak irakasten jarraitzeko.
- 1.12 Koordinazioa segurtasunaren eta larrialdien arloan.** Udaltzaingoaren, Ertzaintzaren eta babes zibileko eta larrialdietako dispositiboen arteko lan-eremua indartzea, koordinazioa eta prebentzioa hobetzeko, informazioa eta datuak trukatzuz.




2. ardatza- MUNGIA IRAUNKORRA ETA SOLIDARIOA



- 2.1 Autokontsumorako energia berriztagarrien instalazioak erraztea eta bultzatzea.** Mungia berdeago batekiko konpromisoaren barruan, autokontsumoa helburu duten energia berriztagarrien instalazioak garatzea erraztuko da. Gainera, gai horri buruzko informazio- eta sensibilizazio-jarduerak egingo dira, eta modu aktiboan parte hartuko da energia-komunitateen proiektuetan.
- 2.2 Udal-eraikin eta - ekipamenduetan energiaren erabilerari buruzko azterlana.** Udal-eraikin eta - ekipamenduetan energia-eraginkortasuna hobetzeko ezarri beharreko ekintzak identifikatuko dituen azterlan bat egitea, energia-gastua eta ingurumen-aztarna murrizteko.
- 2.3 Efizientzia eta iraunkortasun handiagoa espazio publikoaren argiztapenean.** Ohiko farolen ordez LED teknologia duten farola berriak jartzen jarraitzea, energia asko aurreztu eta argiztapen hobea ematen baitute.
- 2.4 Auto elektrikoak kargatzeko gune berriak.** Kargatzeko eremu berriak har ditzaketen espazio publikoak erraztea, gure udalerrian kutsatzen ez duten ibilgailuen kopurua handitzeko.
- 2.5 Uholde-arriskua murriztea.** URA - Uraren Euskal Agentziaren gidaritzapean, gure udalerrian uholde-arriskua murrizteko beharrezkoak diren bitartekoak ahalbidetzea.

- 2.6 Bizikidetzarako eta ohitura osasungarriak sustatzeko programak.** Sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak garatzea, bizikidetzaren bultzatzeko eta osasunaren arloko prebentzioa sustatzeko, Mungiako herritarren artean ohitura osasungarriagoak zabalduz.
- 2.7 Etorkinentzako harrera-protokolo bat sortzea, udalerrian hobeto integra daitezen.** Harrera-protokolo bat sortzea eta ezartzea, Mungiara bizitzera datozen pertsonen zerbitzu horiek ezagutu ditzaten eta Mungiako gizartean ondo integra daitezen bermatzeko beharrezkoak diren udal-zerbitzuak eta udalez gaindikoak koordinatzeko. Gainera, kultura anitzeko proiektuak bultzatuko dira.
- 2.8 Lankidetzarekiko udal-konpromisoa.** Lankidetzako proiektuak eta programak babesten jarraitzea, bai zuzenean, bai Euskal Fondoa Euskadiko Toki Erakunde Lankideen Elkartearen bitartez.



3. ardatza- MUNGIA PERTSONEKIN



- 3.1 Emakume-elkarteekin batera lan egitea.** Dirulaguntzen eta beste baliabide batzuen bidez (espazioak eta materialak lagatzea, laguntza teknikoa, ...), emakumeen elkarteek egiten duten lana babestea, elkarte horiekin etengabeko harremana izanda.
- 3.2 IV. Berdintasun Plana ezartzea.** Mungiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren ardatzetan jasotako ekintzak garatzea: gobernu ona, emakumeen ahalduntzea, antolaketa ekonomiko eta sozialaren eraldaketa, eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.
- 3.3 Genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeen eta adingabeen beharrei erantzutea.** Pertsona horien beharrei (sozialak, enpleguak, osasunekoak...) erantzun integrala eta koordinatua ematea, dauden udal-zerbitzuak eta beste erakunde batzuek (Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak) ematen dituztenak haien eskura jarri.
- 3.4 Ahalduntze Eskola.** Hainbat emakume-profil zuzendutako prestakuntza-tailerrak abian jartzea, emakumeen ahalduntzea ahalbideatzeko.
- 3.5 Aniztasunarekiko errespetua sustatzea.** Aniztasuna, dituen dimentsio guztietan, (funtzionala, kulturala, generokoa...) zabaltzeko eta aitortzeko ekintzak egitea, Mungiako gizarte-aberastasuneko elementu gisa.

- 3.6 Eskolan balioak sustatzea.** Ikastetxeekin lankidetzan, bizikidetzan-, elkartasun-, berdintasun-, osasun- eta gizalege-balioak sustatzea, tailer, jarduera eta ekitaldien bidez. Besteak beste, Garapen Iraunkorreko Helburuei egiten zaien ekarpena eta euskara eta gure kultura zaintzea landuko dira. Horretarako, irakasleekin lankidetzan jardungo da eta Guraso Eskola garatzen jarraituko da, gurasoei hezkuntza-lanean laguntzeko.
- 3.7 Berdintasunezko eraikuntza-ereduak sustatzea Mungiako nerabe eta gazteen artean.** Nerabe eta gazteei zuzendutako jarduerak garatzen jarraitzea, berdintasuna sustatzeko eta kolektibo horretan genero-indarkeria prebenitzeko, udal-baliabide eta -ekipamenduen bitartez (Gaztegunea, kaleko hezitzaileak...).
- 3.8 HAPO berria (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra).** HAPO berriaren lanketari ekitea partaidetza-prozesu zabal baten bidez, Mungiaren etorkizuna guztion artean diseinatu ahal izateko.
- 3.9 Udal-lurzoria eskaintzea Larrabizkerren, babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eraikitzen laguntzeko.** Mungiako gazteen emantzipazioa ahalbidetuko duten babes ofizialeko etxebizitzak sortzen laguntzea, proiektu horien esku udal-titulartasuneko lurzorua jarritz.
- 3.10 Kanpoko udal-igerilekuak estaltzeko aukera aztertzea.** Proiektu bat idaztea proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa baloratzeko.
- 3.11 Udal-kiroldegian hobekuntzak egitea.** Udal-kiroldegia berritu eta hobetzea, hala nola aldagelak berritzea eta entrenamendu funtzionalerako gela bat jartzea.

- 3.12 Adin goiztiarretan kirol-ohiturak bultzatzea.** Gure haurrek kirol-ohiturak bereganatu ditzaten ekimenak sustatzea eta babestea, sedentarismoaren arriskuak murrizteko. Horretarako, ikastetxeekin, guraso-elkarteekin eta udalerriko kirol-elkarteekin lankidetzan jardungo da.
- 3.13 Kirolaren Kontseilua sortzea.** Kirolaren Kontseilua sortzea, Mungian kirola sustatzeko partaidetza- eta lankidetzazko espazio gisa.
- 3.14 Udal-pilotalekua zaharberritzeko lanen lehen fasea.** 2029an 100 urte beteko dituen udal- pilotalekuaren zaharberritzeari apurka-apurka ekitea. Proiektua modu ordenatuan garatuko da, Pilota Eskolako jardueretan ahalik eta inpaktu txikiena izan dezan.
- 3.15 Kaleko kirol-jarduerak sustatzea.** Adin guztientzako kaleko kirol-jarduerak sustatzea, hala nola martxa nordikoa, paseo-taldeak, herri kirolak... espazio publikoko ekipamenduen eta dinamizazio-jardueren bidez.
- 3.16 Mungiako gazteek parte hartzeko kanal berriak.** Mungiako gazteei entzuteko eta gazteek udal-zerbitzuen eta -jardueren diseinuan parte hartzeko moduko kanalak abian jartzea, aisialdi-eskaintza sortzeko eta Mungiako garapen iraunkorrerako beste proiektu estrategiko batzuetan.
- 3.17 "Gazte zabalik" programa garatzen jarraitzea.** Lonjetan eta kalean gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko programa hori garatzen jarraitzea, nerabeen eta gazteen aisialdiarekin lotutako bizikidetzazko arazoak prebenitzeko eta konpontzeko.

- 3.18 Mungirocken instalazioak hobetzea.** Ekipamendu horren erabilera aztertzea, bertan egin beharreko hobekuntzak zehazteko.
- 3.19 Mungiako nerabe eta gazteen artean aisialdi osasungarria sustatzeko jarduera berriak.** Adin talde horiei zuzendutako aisialdi osasungarriaren eskaintza zabaltzeko jarduera berriak abian jartzea. Eskaintza hori diseinatzeko, gazteek beraiek parte hartuko dute.
- 3.20 Gaztegunea hobetzeko gogoeta-prozesua.** Gaztegunearen erabilerari eta bertan garatu beharreko jardueri buruzko hausnarketa-prozesuari ekitea. Prozesu horretan inplikaturako kolektibo guztiek hartuko dute parte.
- 3.21 Hezkuntza Sailarekin eta hezkuntza-komunitatearekin lankidetzak aktiboa izatea etorkizuneko Lanbide Heziketako zentroa diseinatzeko.** Zentro berriaren diseinuan parte hartzea, beharrezko izapideak erraztuz eta udalaren zerbitzuak aktiboki eskuragarri jarritz.
- 3.22 Langabezia dauden pertsonak laneratzen laguntzea.** Mungialdeko Behargintzaren bidez, langabezia dauden mungiarrei laguntzen jarraituko dugu, lan-orientazioko, prestakuntzako eta bitartekaritzako zerbitzuen bitartez, baita beren enpresa sortu nahi duten pertsonen laguntza emanez ere.
- 3.23 Enprekin batera lan egitea, lanbide-heziketa haien beharretara egokitzeko.** Mungiako enprekin etengabeko harremana izaten jarraituko dugu, haien beharrak eta aukerak ezagutzeko. Horri esker, ikasleak eta langabeak hobeto orientatuko ditugu, eta Mungiako eta eskualdeko enpresa-errealitateari erantzungo dioten prestakuntza-ekintzak antolatuko ditugu.

- 3.24 Gure gizarte-zerbitzuen kalitatea sendotzea.** Kalitatezko gizarte-zerbitzuak ditugu, eta etengabe defendatu eta hobetu behar ditugu, emandako zerbitzuaren ebaluaziotik eta gizarte-premia berrien azterketatik abiatuta. Egokia denean, zerbitzuak mankomunatzen jarraituko dugu baliabide publikoak optimizatzeke eta Mungian eta eskualde osoan zerbitzu horietara iristeko aukera-berdintasuna bermatzeko. Gainera, beste erakunde batzuekin batera (Aldundia eta Eusko Jaurlaritza), lankidetzagune bat sortuko dugu zerbitzu horien koordinazioa, eraginkortasuna eta efizientzia bermatzeko.
- 3.25 Gizarte-zerbitzuak anbulatorio zaharreko eraikinean biltzea.** Gaur egun 3 kokalekutan eskaintzen diren zerbitzuak eraikin horretan bilduko dira, eta hori lagungarria izango da arreta hobetzeko.
- 3.26 Mungia Lagunkoiaren ekintza-plana garatzea.** Plan horretan aurreikusitako ekintzak garatzea, Mungia adinekoentzat are lagunkoiagoa izan dadin eta kolektibo horrek gure herriko bizitza instituzional eta sozialean parte har dezan sustatzeko. Adinekoei berariaz zuzendutako ekintzak nahiz belaunaldien artekoak sartuko dira bertan.
- 3.27 Adineko pertsonen nahi gabeko bakardade-egoerak identifikatzeko azterlana.** Azterlan horri esker, egoera horiek hobeto ezagutuko ditugu eta, beraz, arintzeko ekintzak diseinatuko ditugu.
- 3.28 Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzu berria.** Zerbitzuak pertsona horiek familia- eta gizarte-ingurunean mantentzea erraztuko du, autonomia pertsonala sustatuko du eta senideei laguntza eskainiko die.
- 3.29 Adinekoentzako ostatu-eredu eta zerbitzu komunitario berriak identifikatzeko azterlana.** Azterlan hau mendekotasun-egoeran dauden adinekoen beharrei erantzuteko formula berriak definitzeko egingo dugu, zainketen udal-estrategiaren barruan.

3.30 Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako etxebizitzak egokitzeko udal-tasetan hobariak nola aplikatu aztertzea. Egungo egoera eta horrelako esku-hartzeak errazteko formularik egokienak aztertzea, betiere baliabide gutxien dituzten pertsonak eta familiak lehenetsiz.

3.31 Profesionalak ez diren zaintzaileei eta senideei laguntzeko Jagoten programa. Ikastaroak, autolaguntza-taldeak eta bestelako zerbitzuak eskaintzen jarraituko dugu, mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonen laguntza emateko.



4. ardatza- MUNGIK BEREZKO NORTASUNA DU



- 4.1 Euskara sustatzeko planak.** Euskara Sustatzeko 2024-2027ko Ekintza Plana gauzatzea, Mungiako bizitza sozial eta ekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko, eta Udalean Euskararen Erabilera sustatzeko 2023-2027ko Plana ezartzea, udal zerbitzu eta langileak euskararen bultzatzaile izan daitezen.
- 4.2 Parte hartzeko guneak indartzea, euskararen erabilera sustatzeari dagokionez.** Euskararen Aholku Batzordearen jarduerari eustea, euskara-planetan jasotako ekintzen garapena bermatzeko, eta, aldi berean, parte hartzeko gune irekiak sortzea ekitaldi garrantzitsuetarako (Euskaraldia) eta euskara sustatzeko sektore-mailan (eskola, kirola, merkataritza eta ostalaritza).
- 4.3 Arnasguneak, euskararen erabilera soziala bermatzeko guneak, sortzea.** Euskaraz bizitzearen aldeko apustua egiten dutenentzat horrelako guneak bultzatzea.
- 4.4 Mungiako Kulturaren Plan Estrategikoa.** Plan hori tokiko elkarteen eta herritarren laguntzarekin diseinatuko da, eta Mungiak kulturaren arloan dituen lehentasunak zehaztuko dituen ibilbide-orria izango da.
- 4.5 Mungiako elkarteen lana babestea eta nabarmentzea.** Udalak Mungiako elkarteen lana babestuko du hainbat jardueraren bidez, hala nola Elkarteen Azoka bat antolatzea, haien lana ikusarazteko, prestakuntza-ekintzak egitea, kudeaketa hobetu ahal izateko, eta Elkarteen Gida bat egitea, herritarrek udalerrian dauden elkarteak eta egiten duten lana ezagutzeaz gain, elkarte horiek elkar ezagutu eta elkarrekin lan egin dezaten.

- 4.6 Olalde Aretoko jardueren eskaintza handitzea.** Programazio askotarikoagoa eta kalitatezkoa lortzea, eta, aldi berean, kanalak indartzea, Mungiako eta eskualdeko bizilagunek programazio hori ezagut dezaten.
- 4.7 Olalde Aretoko agertokia berritzea.** Egungo eszena-oholtza ordeztzea, baliabide eszeniko hobea eskaintzeko.
- 4.8 Herri-antzerkiaren ekimen bat antolatzea (herri-antzezlan).** Udaletxearen eraikina 1927an eraiki zela 100 urte beteko direla-eta, herri-antzezlan bat diseinatu eta antolatzea, 2027ko lehen hiruhilekoan egiteko.
- 4.9 Olaldeko herri kirolen parkea berritzea eta nabarmentzea.** Informazio-panelak jartzea bertan egiten diren jarduerak ezagutarazteko, eta jarduera berriak eta eskola-bisitak erakartzea
- 4.10 Mungiako azoken balioa nabarmentzea.** Komunikazioa areagotzea azoka horiek noiz egiten diren ezagutarazteko (ostiraletako azoka, hileko abere-azoka, San Antontxu, Baserritarren Eguna) eta tokiko ekoizleak azoka horietan egon daitezen errazteko. "Mungia Azoka Herria" marka bultzatzea.
- 4.11 "Cittaslow" balioak indartzea (bizi-kalitatearen aldeko udalerrriak).** Hirigintza, turismo eta lehen sektoreko jasangarritasunaren alde egiten duen mugimendu horren parte diren Europako 100 herri eta hirietako bat da Mungia. Udalerrri-sare horren jardueretan presentzia aktiboa izateaz gain, azoka bat antolatuko da balio horiek Mungiako herritarren, elkarteen eta enpresen artean ezagutarazteko.



5. ardatza- MUNGIA ETA BERE AUZOAK



- 5.1 Entzute aktiboa auzoetan.** Auzo bakoitzaren beharrak ezagutzeko kanalak indartzea (ura eta saneamendua, argiteria, hondakinen kudeaketa, errepideak eta bideak, espazio publikoa, ekipamenduak eta gizarte-zerbitzuak...), horiek lehenesteko eta goiz konpontzeko.
- 5.2 Birleko Errota bidea urbanizatzea:** Proiektu hori bultzatzea, besteak beste, saneamendua, ur-hornidura eta argiteria Hobetuz.
- 5.3 Atxuri:** Belaunaldien arteko ekipamenduaren proiektuaren lehen urratsak. Proiektua abian jartzeko beharrezkoak diren lehen urratsak ematea, HAPO berrian sartzea, eta Aldundiarekin beharrezko kudeaketak egitea, kokatuta egongo litzatekeen lurzatiaren lagapena lortzeko.
- 5.4 Emerando:** Edateko uraren hornidura-sarea egokitzea eta hobetzea eta bizilagunentzako bilgunea sortzea.
- 5.5 Markaida:** Edateko uraren hornidura-sarea egokitzea eta hobetzea. Partzuergoari proiektu hori gauzatzeko eskatzea.
- 5.6 Atela:** Llona arteko bidegorrian argiak faseka instalatzea.
- 5.7 Larrauri:** Saneamendua hobetzea, espaloia berriz urbanizatzea eta hilerriko kapera hobetzea.

5.8

Laukariz: Bertoko Basoa (bertoko espezien basoa) sortzea eta aisialdirako eremua egokitzea eskolaren aurrean.

5.9

Trobika: Zubiltzaldeko bidea egokitzea.



6. ardatza- MUNGIAK GARAPEN EKONOMIKOA DU



- 6.1 Mungiako merkataritza eta ostalaritza sustatzea eta babestea.** Gure tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko kanpainak, hala nola bono-merkataritzako programak eta lehiaketak eta beste dinamizazio-ekitaldi batzuk, herritarrek Mungiako establezimenduetan eros dezaten.
- 6.2 0 kilometroko produktuak sustatzea.** Gure produktuak sustatzea San Antontxu, Guztoko Azoka eta Mungiako Otzara bezalako ekitaldien bidez.
- 6.3 Mungiako enpresen jarduera ekonomikoa eta lehiakortasuna bultzatzea.** Mungiako enpresetara hurbiltzea Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak lehiakortasuna hobetzeko diseinatutako programak, eta Behargintzaren bidez ekintzak garatzea lanbide tradizionalei balioa emateko, negozioen jarraitutasuna errazteko eta hutsik dauden merkataritza-lonjak aktibatzeke.
- 6.4 Gure saltokiak eta enpresak digitalizatzen laguntzea.** "Mungia On!" programari jarraipena ematea, Mungiako enpresei aholkularitza eta prestakuntza teknologikoa eskaintzeko.
- 6.5 Elkartegintza eta lankidetzaproiektuak sustatzea industrialdeetan.** Mungiako enpresen (bereziki industrialdeetan kokatutakoak) arteko elkartegintza eta lankidetzaz erraztuko duten espazioak sustatzea, jasagarritasuneko eta lehiakortasun-hobekuntzako proiektuei elkarrekin ekin ahal izateko.
- 6.6 Mungiako industriari laguntzea.** Industria-enpresen beharrak etengabe identifikatzea, gaikuntza-jardueren bidez eta erakundeen laguntza-programetarako sarbidean laguntzeko

7. ardatza- MUNGIK KUDEAKETA ERAGINKORRA DU




- 7.1 Gobernu irekiarekiko konpromisoa.** Herritarren partaidetzarako gure eredua indartzea entzute aktiboagoa eta herritarren zuzeneko parte-hartze handiagoa lortzeko hainbat prozesutan, hala nola partaidetza bidezko aurrekontuetan, kultura- eta aisialdi-plangintzan eta jai herrikoien antolaketan. Gardentasun Ataria etengabe eguneratuta edukitzea, edukiak ulergarriago eginez. Aginte Planaren eta gainerako udal-planen gauzatzeari buruzko kontuak ematea aldian-aldian.
- 7.2 Gardentasun handiena udal-kudeaketa ekonomikoari dagokionez.** "Udal-dirua mungiar guztiena da" printzipioa oinarri hartuta, udal-kudeaketa ekonomikoari buruzko informazioa indartzea, gastuaren zertarakoaren eta udal-zerbitzu eta -programen bidez lortutako eraginaren berri emanez.
- 7.3 Zerbitzu mankomunatuak bultzatzea, baliabide publikoak optimizatzeke.** Mankomunitatearen eta Jata-Ondoren bitartez eskualde mailako zerbitzu berriak mankomunatzeko aukerak aztertzea, udalerrien arteko sinergiak aprobeztatzeko
- 7.4 Administrazio elektronikoa bultzatzea eta herritarrei hurbiltzea.** Izapide digital berriak ahalbidetzea udal-zerbitzuetan, hala nola kirol- eta hezkuntza-jardueretan izena ematea, eta administrazio elektronikoa herritarrengana hurbiltzea, informazio- eta prestakuntza-ekintzen bidez eta udal-izapideei buruzko azalpen osoagoa eta intuitiboagoa emanez.

7.5

Tokiko elkarteen eta Udalaren arteko harremana erraztea. Elkarteei laguntzea Udalarekin harremanak modu digitalean egin ditzaten (dirulaguntzak eskatzea eta kudeatzea, fakturak egitea, espazio publikoa erabiltzeko eskaerak egitea...). Horretarako, informazio-eskuliburu bat egingo da, eta ziurtagiri elektronikoei, fakturazio elektronikolari eta abarri buruzko prestakuntza eskainiko da.

7.6

Ate irekien jardunaldiak udaletxean. Jardunaldi horien bidez Mungiako bizilagunei hurbildu nahi zaizkie udal-zerbitzuak.




PLANAREN JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KONTU-EMATEA

Agintaldi Plan hau kontuak emateko dinamika baten barruan sartzen da, eta legegaldi honetan dinamika hori sakondu nahi dugu Mungiako Udalean . Helburu bikoitzarekin:

- Alde batetik, gure kudeaketa hobetzeko pizgarri gisa, kontuak emateko betebeharrak berekin dakarren zorrotasuna gure gain hartzen baitugu;
- Bestetik, Mungiako herritarrei **hartutako konpromisoen aurrerapena neurtzeko sistema gardena** eskaintzeko aukera ematen du.

Kontu-emate hori, besteak beste, honako tresna hauetan oinarrituko da;

- Plana osatzen duten **jardueren aurrerapen-mailari buruzko informazioa aldizka-aldizka argitaratzea udaleko webgunean.**
- **Aurrez aurreko topaketak** herritarrekin eta udaleko eragile garrantzitsuekin, lehentasunezko jardueren egoera aurkezteko eta horien gainean herritarrek egindako balorazioak eta proposamenak jasotzeko.





AGINTALDI
PLANA
2023-2027



MUNGIA
UDALA